

# EUSKALTEGIEN TXOKOA

## AEK EUSKALTEGIA



Mundutik Euskal Herrira //

Aek-n etorkinak euskara ikasten

Etorkinekin elkarrizketan //



ZILEGI ESKOLA- Sendabelarrak  
«Edozein gauza ikasteko edo egiteko osagairik  
beharrezkoena: nahi izatea» //



/// Zeure burua zaintzeko errezetak

Egileen argazkiak //



IV/ Zatoz Zilegi eskolara  
Zilegi eskolei buruzko informazioa

# Mundutik Euskal Herrira

Datozen herrialde-  
tik datozela Euskal  
Herrian daude orain.  
Besteak beste, geure  
ohiturak, bizimodua,  
antolaketa adminis-  
tratiboa, hezkuntza  
sistema eta aukerak  
ezagutu behar dituzte  
hemen integratu eta  
biziko badira. Baina  
bada, hauetaz gain,  
besteengandik bereiz-  
ten gaituen ezaugarri  
bat, askok eta askok  
hona etorri arte eza-  
gutzen ez dutena,  
gure hizkuntza.



Aek-n euskara ikasten dabilen etorkin talde bat, Maite irakaslearekin.

EUSKARA badela, batzuk euskaraz bizi garela eta eguneroko bizitzan euskara erabiltzen dugula ikusten dutenean, integrazioarako ezinbesteko ezaugarria dela ulertzen dutenean, ikasi egin nahi izaten dute. Ez da erabaki makala, bertako askok oraindik

ikasi ez dutenean, atzerritik etorritako batek ikasi nahi duela adierazi eta horretan jartzea.

Uste dugu bertakoen errespetu eta laguntza merezi dutela mundutik Euskal Herrira etorri diren eta eus-

kaldundu nahi duten guztiok.

## Hiru urte lanean

Badira hiru urte Hernaniko AEK euskaltegian etorkinekin lanean hasi ginela. Euskara ikasi nahi izatea, etorri diren lekuetatik eta etorri

diren egoeratan etorrira, bada nahikoa meritu. Bizi eta lan baldintzak direla-eta, ez dute erraza ordutegi egoki bat topatzea euskaltegira etortzeko, baina nabarmentzekoa da erakutsi duten nahia eta gogoia.

Batzuek ez dakite zenbat denbora emango duten hemen, beste batzuk prest daude bertan gelditu eta sustriak botatzeko. Elkarrizketa honetako lau lagunok halaxe adierazi dute, hemen gelditzeko asmoa dutela. ||

## Etorkinekin elkarrizketan...

AEKko ikasle talde bat gara eta gurekin euskaltegian ikasten ari diren etorkin talde bati elkarrizketa bat egin diegu.

Beraiek, Portugaleko Nazaret, Txileko Karina, Peruko Mirta eta Brasilgo Angela dira. Batzuek besteek baino denbora gehiago daramate Euskal Herrian bizitzen.

Mirta ikasketengatik etorri zen hona eta ondoren lana aurkitu zuelako geratu zen bertan. Gainontzekoak berriz, maitasun istorioengatik



Nazaret eta Mirta erdian egin zitzaizen elkarrizketan.

Guztiak iritzi ezberdinak eduki arren, denak daude oso pozik eta gustura euskaldunon artean.

daude hemen, arrazoi ezberdinek ekarri zituzten arren. Karina adibidez, orain dela

gutxi ezkondu da euskaldun batekin.

Euskaldunon inguruko

iritzi ezberdinak dituzte, Angelak parrez dio, burugorrrak eta itxiak garela eta

asko pentsatzen dugula etorkizunean. Mirtak ordea, aldeantzik iritzi du, bere ustez, euskaldunak oso irekiak gara eta jendea oso ondo hartzen dugu. Guztiek iritzi ezberdinak eduki arren, denak daude oso pozik eta gustura euskaldunon artean. Oso ondo tratatuak sentitu dira beti. Nazaretek adibidez, Hernani bere herria dela esan digu.

Laurek dute Euskal Herrian bizitzen geratzeko asmoa, eta euskararekiko beraien helburu nagusia jendearekin komunikatzea da, beraz, euskara ikasten jarraituko dutela diote.

Bukatzeko, elkarrizketa hau egiteko eduki duten presuntasuna eskertu nahi diegu eta guk bezalaxe euskara ikasten jarraitu dezaten animatu nahi ditugu. ||

**ZILEGI ESKOLAK**

- Sendabelarrak -

«Edozein gauza ikasteko edo egiteko osagairik beharrezkoena: nahi izatea»

EZ, ez gatoz euskara ikasteko erreze-ta sorta magikoarekin. Bestelako edozein gauza ikasteko edo egiteko badakizu zein den osagairik beharrezkoena: **NAHI IZATEA.**

Izan ditzakezu eskura inon diren

tresna, osagai eta libururik hoberenak, baina nahi ez baduzu, alferrik da. Eta alderantziz, nahi baduzu, lortuko duzu.

Beraz, nahi izanez gero, hementxe dituzu hiru errezeta zure burua zaindu eta apaintzeko.

## Zeure burua zaintzeko errezetak

**Aurpegirako krema****OSAGAIK** (20 pertsonentzako):

- ☞ Larrosa ura 700ml
- ☞ Lanette 10 goilarakada haundi
- ☞ Argizaria 8 goilarakada haundi
- ☞ Kalendula olioia 30 goilarakada haundi

**NOLA EGIN:**

Lehenengo, bota lapikora larrosa ura eta lanettea. Lapikoa sutan jarri

"Baño Maria" erara eta urtzean bota

argizari txikitua eta kalendula olioia. Ondoren, nahastu, likido gelditu arte. Gero, lapikoa sutatik kendu eta boteetara bota. Nahastu loditu arte.

**Ezpainetarako balsamoa****OSAGAIK** (30 gr-tako potetxea betetzeko):

- ☞ 5 gr argizari
- ☞ 20 gr kalendula olio
- ☞ Txilar ezitia (koilarakada laurdena)
- ☞ 8 tanta mandarina esentziadun olioia

**NOLA EGIN:**

Argizaria eta kalendula olioia "baño marian" jarri urtu arte.

KONTUZ! Nahasketak ez du irakin behar!!!

Nahasketa sutatik atera eta ezitia eta mandarina esentziadun olioia nahastu.

**Intsusa ukendua****OSAGAIK:**

- ☞ litro 1 oliba olio (zenbat eta gradu gehiago hobe)
- ☞ 125 gr. argizari
- ☞ 200/250 gr. intsusa (adar berriaren bigarren azala).

**NOLA EGIN:**

Altzairu herdoilgaitzezko ontzian edo ontzi esmaltatuan olioia berotzen jarri. Epel dagoenean intsusa azala bota eta su motelean egosten utzi, baina irekin gabe eta noizean behin nahastuz. Ez tapatu. Honela ordu betez eduki, gutxi gora-behera. Landarea xukatu eta hozten utzi.

Landarea hozten den bitartean argizaria oliotan bota, bertan disolba dadin.

Landarea harizko edo kotoizko oihala batean jarri eta xurgatu duen olioia ongi-ongi xukatu ontzira.

Argizaria disolbatutakoan harizko edo kotoizko oihala erabiliz iragazi

eta kristalezko pototan bota beroa dagoela. Ukendua hoztean potoak itxi eta etiketatu.

Etiketean landarearen edo erabilitako osagaien izenak, ezaugarriak eta ontziratze data idatzi.

Oliotan egindako ukenduak 2 urtetan kontserbatzen dira, gero ezaugarriak galtzen dituzte.

Intsusa biltzeko garairik egokiena udaberri hasiera eta udazken bukaera izaten da, landarea ernatzen hastean edo bere zikloaren bukaeran, hau da, ezaugarri gehien dituen. Ilbeheran jaso behar da, ahal izanez gero.



Aurtengo urtarrilean egin zen Zilegi eskoletako Sendabelarren saioko bi argazki. Ikasleek eta herritaren gustura hartzen dute parte Zilegi eskoletako saioetan.

Next Blog»

## Datozen saioak

Hona hemen apirila-ekaina bitarte aurreikusi ditugun saioak.

Saio hauen datak eta ordutegiak zehazteke ditugu; beraz, informazioa gure blogean topatuko duzu:  
<http://zilegieskola.blogspot.com>

- *Sorgintasuna Euskal Herrian*
- *Euskal foru eta karlistadak*
- *Sexualitatea*
- *Eneagrama*
- *Dena den, adi egon hurrengo asteetan saio gehiagoren berri emango baitizuegu.*
- *Zeramika*
- *Landareak nola zaindu*
- *Gozogintza*
- *Bizi ereduak/Kontsumo ereduak*
- *Xakea...*

## Bloga

Zilegi Eskola zer den, zein saio antolatzen ditugun, noiz, non, nola... eta abar ezagutu nahi badituzue, orain aukera berri bat duzue.

Zilegi Eskolak bere bloga du:

<http://zilegieskola.blogspot.com>

Bertan antolatu ditugun saioei buruzko informazio zehatza duzu eta baita aurrerantzean antolatuko ditugunena ere. Saioen argazkiak ere izango ditu-

zue bertan eta baita bideoak ere. Beraz, nolako saioak egiten ditugun ezaugu eta ikusi ahal izango duzue.

Honetaz gain, zuen iritzia, galderak eta kezak idatzi ahal izango dituzue, zuen parte-hartzea oso garrantzitsua baita antolatzen ditugun saioak denon parte-hartzearekin antolatzeko, eta gero eta saio hobeak eta interesgarriagoak egiteko.



[zilegieskola@aeknet.net](mailto:zilegieskola@aeknet.net)  
Lazarmendi kalea 11  
48120 Hernani

# Zatoz Zilegi Eskolara

## Parte hartu jasoz

- ☞ Gai jakin bati buruzko interesa duzula?
- ☞ Zilegi Eskolan gai horri buruzko saioak daudela?
- Zuk, interesa baldin baduzu, Zilegi eskolan
- ateak zabalik dituzu saio horietan parte hartzeko eta bertan lantzen dena jasotzeko.
- Ez da euskara lantzen duguna; baizik eta edozein gai euskaraz.

***Ikasi, landu, gozatu parte hartuz.***

## Parte hartu emanez

- ☞ Herritar asko zaudete zer esana, zer erakutsia duzuenok.
- ☞ Batzuk jada Zilegi Eskolan utzi duzue arrastoa.
- Edozer dela ere zuk egiten dakizuna, zuk erakutsi nahi duzuna, etorri guregana. Zuk egin nahi duzunarekin eta guk eskura ditugun baliabideekin osatuko dugu saio bat, edo batzuk.
- ☞ Zuk dakizuna besteei azaldu ezean, ez jakitea bezalaxe da, ez zaizu iruditzen?

***Zure zain gaude, ateak zabalik.***

**Egileak:** AEK Euskaltegiko ikasleak

